

## A.- Entzumena

1.	Gai izatea eguneroko elkarrizketan, argi, astiro eta zuzen esandako ulertzeko; batez ere solaskideak ulertarazteko ahalegina egiten badu.	<i>Behar den informazioa lortu honen antzeko testuinguruetan: dendan, geltokian, posta-bulegoan, jatetxean, zinean...</i>
2.	Gai izatea bere inguruko elkarrizketa baten gaia zein den harrapatzeko, jendeak astiro eta argi hitz egiten badu.	<i>Etxekean artean, lankideen artean edo lagunaren artean sortzen diren eztabaidak, gorabeherak...</i>
3.	Gai izatea perpausak, hitzak eta esamoldeak ulertzeko klasean landutako gaietan (norberari eta familiari buruzko informazio oinarritzkoa, erosketei buruzkoa, herrikoa, lanekoa).	<i>Aurreko egoeretan eman ahal diren ohiko espresio zein hitz: "kokoteraino nago", "ez nago ados", "ezkerretara jo", "zenbat balio du?", "zer ordutan ailegatuko da...?"</i>
4.	Gai izatea puntu nagusiak harrapatzeko mezu eta iragarki labur, argi eta sinpleetan.	<i>Tren geltokiko iragarkiak ulertu, telebistako trafikoko aholkuak, irratiko iragarkiak, kontzertu/zine... emanaldien iragarkiak...</i>
5.	Gai izatea eguneroko arazoekin zerikusia duten grabazio laburren informazio nagusia ulertzeko, astiro eta argi hitz egiten denean.	<i>Adibidez, langileen eskaerak, etxebizitzaren gorabeherak...</i>
6.	Gai izatea telebistan agertzen diren jazoera, istripu eta horrelako berrien mamia identifikatzeko, baldin eta irudi argiak agertzen badira	<i>Istripu bati buruzko berria (non gertatu, noiz, zenbat zauritu...), lan istripua, kirol bati buruzko berria...</i>

## B.- Irakurmena

1	Gai izatea albiste-laburpenetako edo egunkariako artikuluko errazetako informazio nagusi identifikatzeko. Testu horiek argi egituratuak eta irudizatuak izan behar dute eta beren edukietan zerbakiak eta izenak garrantzitsuak dira	<i>Adibidez kirol, istripu, lanari buruzko artikuluan, (Gaia zein den, non gertatu, noiz eta nola bukatu) Iragarki laburretan behar duzun informazioa lortu: <b>Non da? Noiz burutuko da? Nork hartuko du parte?</b></i>
2	Gai izatea eskutitz pertsonal sinpleak ulertzeko. Esate baterako, norbaitek eguneroko gauzak kontatzen dituen edo horretaz galdetzen duenean	<i>Senideen edo lagunaren artekoak eta gaia ezaguna denean, adibidez: <b>"Izeba Maritxu gaixorik dago..."</b></i>
3	Gai izatea inguruko batek edo lagunek idatzitako mezu sinpleak ulertzeko	<i>Esaterako, futboleko jokatzeko noiz bilduko diren esanez edo lanean egin behar duen eginkizunaren aldaketa ohartarazteko... <b>"Nagusiak esan du..."</b></i>
4	Gai izatea da aisialdiko jarduerari, erakusketari eta abarrei buruzko informazio nagusia esku-paperetan aurkitzeko.	<i>Adibidez, telebistako programazioa; edo zinema eta ikuskizunen ordutegia, lekua... informazioa lortzeko.</i>
5	Gai izatea egunkarietan iragarki txikiak gainetik irakurtzeko, nahi duen izenburua edo zutabea aurkitzeko eta informazio-zati nagusiak identifikatzeko	<i>Esate baterako etxeen, autoen edo ordenagailuen prezioak eta neurriak ulertu.</i>
6	Gai izatea zerbitzuen eta tresnen argibide sinpleak ulertzeko	<i>Adibidez: telefono publikoena, autobús ordutegiarena....</i>
7	Gai izatea ordenagailu-programen mezu edo	<i>Ordenagailuan azaltzen diren mezu</i>

	laguntza-argibide sinpleak ulertzeko.	<i>sinpleak: ireki, gorde honela, txertatu...</i>
8	Gai izatea eguneroko bizimoduari buruzko idazki laburrak ulertzeko, gaiak ezagunak direnean eta testua erraz idatzita dagoenean.	<i>Kalean, lorategietan agertzen diren kartelak "debehatuta dago.., txakurrik ez..</i>

## C.- Elkarreragina (elkarrizketa)

1	Gai izatea salerosketa sinpleak egiteko dendetan, posta bulegoan edo bankuan. (simulazio-egoera batean klasean)	<i>Ekintza errazak burutu, zer nahi duen esanez, prezioa galdetuz eta erantzunak eman</i>
2	Gai izatea garraio publikoak erabiltzeko (autobusak, trenak eta taxiak), oinarriko argibideak eskatu edo txartelak erosteko .baliabide nahikorik badu-eta	<i>Adibidez: Ordutegia zein den , zenbat balio duen, nondik nora joaten den.</i>
3	Gai izatea bidaiari buruzko informazio sinplea lortzeko	<i>Bidaia nondik nora, zenbat egun, zenbat balio duen...Baita egingo diren ekintzak eta horietan eguna eta ordua adieraziz</i>
4	Gai izatea edatekoa edo jatekoa eskatzeko.	<i>Tabernetan , jatetxeetan (simulazio-egoera batean klasean)</i>
5	Gai izatea aitzakiak jartzeko edota onartzeko.	<i>Kortesiako esapideak erabiliz. "Eskerrik asko, baina ezin dut"</i>
6	Gai izatea erosketa sinpleak egiteko, zer nahi duen esanez eta prezioa galdetuz.	<i>"Zenbat da?" "Nongoak dira?" "Nola daude?"</i>
7	Gai izatea mapa edo plano baten gainean bidea galdetzeko edota adierazteko.	<i>Distantzia zein den, nola joan daitekeen: oinez ,autoz... Nondik nora/ zenbat falta</i>
8	Gai izatea da jendea agurtzeko, nola dauden galdetzeko eta ematen dizkioten berrien aurrean zerbait esateko.	<i>Nola dauden / lana eta familiari buruz galdetuz, /berrien aurrean zerbait esanez.</i>
9	Gai izatea gonbitak egiteko edo gonbitei erantzuteko formula errazak erabiliz.	<i>Eguna, ordua eta tokia adostuz. "Etorri ahal zara?" "etorriko zara ezta?" "Ez dakit ba!"</i>
10	Gai izatea zer gustatzen zaion eta zer gustatzen ez zaion esateko .	<i>"gustatzen zait" "gustukoa dut" "Ez dut gustukoa" "nahiago dut"</i>
11	Gai izatea beste batzuekin zer egin eta nora joan eztabaidatzeko. Gai izatea elkartzeko ordua eta tokia adosteko.	<i>Adibidez asteburuan mendirako plana egiteko eguna eta eginkizunak adostu edo zinemara joateko.</i>
12	Gai izatea jendeari lanean eta aisialdian zer egiten duen galdetzeko; baita galdera horiei erantzuteko ere, galdetzen berari galdetzen diotenean.	<i>Non egiten duen lan, zertan aritu, norekin, lan-ordutegia Gustatzen zaiona zer den, dituen hobyak</i>

## D.- Ahozko adierazpena

1	Gai izatea bere burua, familia eta bestelako jendearen berri emateko eta deskribatzeko.	<i>Familiako partaideak nolakoak diren, egiten dituzten ospakizunak, dituzten gustuak, arazoak, gertaerak...</i>
---	---	--

2	Gai izatea non bizi den, azaltzeko; bere etxea, herria nolakoa den....deskribatzeko modu errazean .	<i>Adibidez; bere etxea, herria nolakoa den, itxura, zeren ondoan dagoen, lehen eta orain...</i>
3	Gai izatea gertaeren kontaketa labur eta oinarrizkoak egiteko.	<i>Adibidez: Lanean gertatutakoa, ikusitako filmaren laburpena, istripua..., modu laburrean kontatu.</i>
4	Gai izatea jasotako heziketa eta bere lehengo nahiz oraingo lana alderatzeko	<i>Txikitako oroimenak , bizipenak, eskola garaiko esperientziak, lana...</i>
5	Gai izatea bere zaletasunak eta interesak sinpleki deskribatzeko.	<i>Gustatzen zaiona, gustatzen ez zaiona, (liburuak, bidaiak, kirolak...) egin nahi duena, egin nahi ez duena...adieraziz.</i>
6	Gai izatea izandako pasadizoak eta esperientzia pertsonalak kontatzeko	<i>Adibidez, Azken asteburua, azken oportetan egindakoa, ikusitakoa kontatu</i>

### E.- Estrategiak

1	Gai izatea norbaitengana jotzeko, laguntza eske	<i>Adibidez arreta lortzeko: "Aizu, mesedez..." "badakizu..."</i>
2	Gai izatea noiz ulertzen duen adierazteko.	<i>."Bai, ulertu dut "...hori da"...</i>
3	Gai izatea solaskideari eskatzeko esan duena errepika dezala.	<i>"Esango didazu berriro...?" "Ez dut ulertu, esan berriro, mesedez"</i>
4	Gai izatea ulertzen ez duenean esanahia galdetzeko eta argitzeko.	<i>Ulertzen ez duen hitz bat edo esaldia argitzeko honelako esapideak erabili: "zer esan nahi du..." "Horrekin zer esan nahi duzu?"</i>

### F.- Hizkuntza-kalitatea eta baliabideak

1	Gai izatea komunikatzeko, buruz ikasitako perpausak eta esaldi sinpleak erabiliz.	<i>"Zer moduz?" "Ongi esan beharko!" "Autobusez etorri zara?..."</i>
2	Gai izatea hitz multzoak elkartzeko "eta", "baina", "ba(da)" "gero" ... bezalako lokailuak erabiliz.	
3	Gai izatea da egitura sinpleak zuzen erabiltzeko.	<i>Esaldiaren ordena: "Hau nire etxea da" Aditza orain eta iraganean Nor-nori-nork aditz formulak</i>
4	Eguneroko egoera sinpleetan jarduteko adinako lexikoa dauka. (Ikastunitateekin landutakoa)	<i>-familia / -kalea / -lana / -zaletasunak -oporrak /- haurtzarora / -osasuna -azoka</i>

### G.- Idazmena

1	Gai izatea ohar laburrak eta mezu sinpleak idazteko.	<i>Adibidez: "Etxean ez dago kaferik" "zure amak deitu du"</i>
2	Gai izatea jasotako heziketari, lanari,	<i>Adibidez, laneko inprimakia betetzeko</i>

	interesei edota bere trebetasunari buruzko aldera-sorta bati erantzuteko.	<i>edo matrikula egiteko (familia/ egoera Lana/ ikasketak... adieraziz)</i>
3	Gai izatea gutun batean bere burua aurkezteko (adib. Familia, eskola, lana, zaletasunak)	<i>Txikitako pasadizoak, arazoak, bizi izandako lekuak...</i>
4	Gai izatea gertaerak esaldi sinpleekin kontatzeko eta zer gertatu zen (noiz eta non) adierazteko	(adib. festa bat edo istripu bat). <i>Zer gertatu da?</i> <i>Non gertatu da?</i>
5	Gai izatea bere eguneroko bizimoduari buruz idazteko, esaldi eta esapide sinpleak erabiliz.	(Jendea, lekuak, lana, eskola, familia, zaletasunak).
6	Gai izatea esapide sinpleak erabiliz, eskutitz laburrak idazteko: zoriontzeko, helbidea emateko, zerbait galdetzeko edo norbaiti eskerrak emateko.	<i>Egoera erreal batetik abiatuta eta Ikasitako formulak erabiliz:</i> <i>“Kaixo laguna!”</i> <i>“Besterik gabe...”</i>
7	Gai izatea solasaldi laburrak idazteko, "eta", "baina", "gainera", "bada"... bezalako lokailuak erabiliz.	<i>Adibidez, pertsona bati egindako elkarrizketa (fikziozkoa edo erreala)</i>
8	Gai izatea gertaera bat kontatzeko ordena kronologikoa segituz eta horretarako lokailu nagusiak erabiliz ("lehenik", "gero", "orduan", "ondoren", "beranduago").	<i>Adibidez, asteburuan zen egin duen... - (“goizean goiz ... gero...beranduago, arratsaldean”)</i>